

Gurarien arbola

Behin hala, bidaian zebilen gizaseme bat paradisuari sartu zen konturatu gabe. Indioen kosmologiako paradisuari gurariak betetzen dituzten arbolak daude.. Besterik gabe, haien itzalean eseri eta nahikariak izan ahala betetzen zaizkizu, ez dago ez alderik ez aldirik nahikariaren eta bere betetzearen artean.

Gizona nekaturik zegoen eta halako arbola baten itzalpean loak hartu zuen. Esmatzean goseturik zegoen eta gogoetatu zuen: -Goseak nago!. Jateko zerbait izango al dut! Atoan, berez, jaki zoragarriak agertu zitzaizkion hutsetik.

Hain zegoen goseak hartuta, non ez zuen inolako ardura izan ea nondik etorria zen jakiteko. Goseak zaudenean ez baitzaude filosofiarako. Segituan jaten jardun zuen, janaria benetan gozoa zegoela! Behin berdinuta, ingurura begiratu eta pentsatu zuen: -Orain edateko zerbait izango banu... Paradisuari ez dagoenez debekurik, jarraian, ardo eder bat agertu zitzaion.

Ardoa husten zuen bitartean haize suabea zebilen arbolaren abaroen eta gizona ea nola agertu ziren gauza haiek galdetzen hasi zitzaion buruari: -Zer ari da gertatzen ba? Ametsetan nabil edo mamuak ote daude hemen niri ziria sartzen? Beldur puntu bat hartu zuen eta mamu ikaragarriak agertu zitzaizkion. Izaturik akabatuko zutelako ustea izan zuen eta jata garbitu zuten.

Hau aitzineko parabola da, esan- nahi eskerga duena. Zure gogoari nahikari emateko den arbola da. Gogoetatzen duzuna inoiz, lehenago edo geroago, beteko da. Batzutan, gertakaria hain da latza, non desiratu zenuela ere ahaztu egiten duzun, eta ez daukazu iturria ezagutzerik. Baina inoiz konturatuko zara zure gogoetari ari zaizkizula bizitza eratzen. Zeru zein ifernu sortzen dizkizute pentsamenduek. Zure zorientasuna edo zoritxarra. Norberak mundu magikoa ehuntzen dihardu. Amarauna bezala. Eta arma bere sarean harrapatuta gelditzen da. Hori ulertuta, errealitatea aldatzen hasten zara.

Erantzukizuna zurea da. Zure infernua zeru bihurtzeko. Zure eskuetan egon liteke. Azkenean mundua sortzeari utzi ahal diozu. Sortzaileak atseden edo erretreta har dezake. Pentsagailuaren erretreta meditazioa da.

Modu bat bizitza ikusteko.

Arianna Baggi